

# noaua


Hilerrira igo eta jaisteko  
bus zerbitzua egongo da  
azaroaren 1ean

Sare Herritarra osatu da

Iazko Euskaraldiari buruzko  
datuak aditzera emango dira  
azaroaren 6an



**Ama talde batek bere bularreko esnea  
eman du Holandan ikertua izan dadin**



# FUNERARIA GONZALEZ EHORZTETXEA

munalurra 8, USURBIL

**OCASO, SANTALUCIA...IZANEZ GERO,  
HERIOTZA GERTATZEN BADA,  
DEITU ZUZENEAN GURE BULEGORA 24H,  
(edo aseguruari gure zerbitzuak eskatu).**

MOMENTU LATZETAN DENETAZ ARDURATZEN GARA

**943 36 21 63 (24H)**

•BEILATOKI GUZTIAK: USURBIL, ERREKALDE... •ERRAUSKETAK



[www.funerariagonzalez.es](http://www.funerariagonzalez.es)



*Santu guztien egunean,  
aukera zabala!*

**URTINEA**

San Esteban Auzoa, Usurbil - Tel: 943 36 22 55



**Bozkatu  
Vota**

**ehbildu**

 **Mertxe  
Aizpurua**

 **Jon  
Iñarritu**

 **Gorka  
Elejabarrieta**

**Erabaki**

**BAIETZ!**

## Albiste iruditan

# Sagardo ospina sukaldatzen

**D**ani Lasa sukaldariarekin eta Jakoba Errekondorekin urriaren 23an egin zuten tailerra duzue ondoko irudian. Sagardo ospina sukaldetan zertarako eta nola erabili lantzen eta dastatzen aritu ziren.

### Afari maridatua euskal sagardoarekin

Azaroaren 12an hurrengo hitzordua; euskal sagardoarekin maridaturiko afari gidatua, Andatzpe elkartearen 20:00etan. "Bertan tabernetako sarituek, ostalariek, elkarteetako ordezkariak eta herritarrek hartu ahal izango dute parte". Iragarri dutenez, "otorduko platera desberdinekin sagardo aukera zabala dastatuko da". Hitzordurako txartelak aurrez eskuratu ahalko dituzue Bordatxon, Txirristran, Aitzagan eta Alkartasuna Kooperatiban.



Sagardo ospina sukaldetan zertarako eta nola erabili lantzen eta dastatzen aritu ziren Aitzagan. Argazkia: Jakoba Errekondo.

## Laburrean

### Batukada feministan izena emateko epea

Azaroaren 5ean amaituko da izena emateko epea. 943 377 110 telefono zenbakira deitu edo parekidetasuna1@usurbil.eus helbidera idatzi.

### Gripearen aurkako txertoa

Ohi bezala, bereziki 65 urtetik gorakoei, haurdun egon edo gaixotasun kronikoak dituztenei zuzendua dago kanpaina. Argibide gehiago anbulatorioan.

### Datorren astelehenean odol ematea

Usurbilgo Odol Emaileen Elkarteak deitutako bi hileroko hitzordua, datorren astelehenean, azaroaren 4an 18:00-20:30 artean anbulatorioan.

# noaua


Kultur Elkarte  
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea, 20.170 Usurbil  
943 360 321 ||| elkarte@noaua.eus ||| www.noaua.eus  
Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

**Elkarteko lehendakaria:**  
Idoia Torregarai.  
**Aldizkariko koordinatzailea:**  
Imanol Ubeda.  
**Idazkaria:** Aizpea Aizpurua.  
**Diseinu berria:** Erroitiz S. L.

**Erredakzio kontseilua:**  
Imanol Ubeda, Aritz Lasarte,  
Itxaso Orbegozo.  
**Publizitatea:** Beatriz Alda,  
publizitatea@noaua.eus

**Banaketa:** Iñaki Irazusta,  
Iban Maritxalar.  
**Tirada:** 2.800 ale.  
**Lege-Gordailua:** SS-668-96  
**ISSN:** 1136-6818.

**Inprimategia:** Antza. Zirkuitu  
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.  
**Harremanetarako:**  
erredakzioa@noaua.eus



## EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



Euskal presoak

Euskal Herrira!



Ixaso Orbegozo

## Gau luzeak aprobetxatuz

**I**gandean urteroko ordu aldaketa egitea zegokigun, egunak moztu eta gauak luzatuko dizkigun aldaketa izan zen. Azkena izango ote?

Zenbait egunetan, bostetarako ilundu egingo digu. Zenbat gauza uzten ditugun egiteke argirik ez dagoenean. Manta lodi bat armairutik atera eta pelikulak ikusteko egunak iritsi dira zenbaitentzat, hurrengo uda bitarte. Txokolate beroa eta manta lodia, hori bikotea negu hotz eta ilunari aurre egiteko. Etxerako planak egiten ditugu beti, gurean edo gure lagunenean, baina barruan; beti barruan. Zenbait diziplina praktikatzan dituztenentzat deskantsurako unea izango da negua, besteak beste, ki-

rolarientzat. Modu positiboan hartu beharko dugu ilunarena, eta etxean sartuta egon baino, kanpora ateratzeko aitzakiak aurkitu beharko ditugu. Espero dezagun behintzat, azken aldiz izango dela.

Argazkilaritza maite dugunontzat egokitu edo hil, ez dago besterik. Argiarekin jokatu behar izaten dugu argazki onak ateratzeko; argi-ilunen arteko oreka aurkitu edo itzalekin jolastu. Nola ateratzen dira argazkiak, ordea, argirik ez dagoenean? Gaueko argazkilaritzara egokitu behar. Denden eta farolen argiak aprobetxatu beharko ditugu, eta sormen lanak egin. Zerbaiten falta izateak hori indartzen du horren justu: sorkuntza.

Udako ilunabarretan korrika egitera ateratzen direnek eta hondartzako ibilalditxoekin

gozatzen dutenek goizago egin beharko dituzte lan horiek. Ilun dagoenean kalean kirola egiten askoz jende gutxiago ikusten da. Arriskutsu bilaka daiteke zenbaitetan, bizikletan ibili edo korrika egitera ateratzen direnentzat. Gustura izango dira gimnasioen maitale sutsu horiek, euren bikoitza pisatzen duen burdinazko barrak lepoan hartu eta gora eta behera. Gimnasioko epelean egingo dute negua. Kalean kirola egiten duten horiek ere gisa horretara moldatu beharko dute, edo ilun eta hotzarekin eguneroko errutinan jarraitu.

Euria ere erruz egingo du ekaina bitarte, azken egunotan bezala. Armairutik atera berri ditut katiuskak, eta ez dut uste atzera itzuliko direnik denbora luze batean. Plastikoko puska horiek hanketan jarrita busti ez

gara egingo, baina izoztu bai behintzat. Gezurra badirudi ere, duela hilabete sandalietan genbiltzan eguzkiaren bero epelean. Hori dute egun hauek, batean sandaliek izerditan eta hurrena bota lodiekin hotzez hiltzen. Ezin armairu aldaketa fundamentuz egin.

Espero dudana bakarra neguko azken ordu aldaketa izatea da. Goizean esnatzerako eguzkia aspaldi aterata egoteak ez du ezertarako balio biztanleriaren gehiengoak aprobetxatzerik izango ez badu. Lanean sartuta egoteko ez dugu eguzkiaren beharrik. Esmatu ahal izateko hiru kafeak hartzerako eguerdia egiten zaigu eta... Arratsaldeko animaliak gara gizakiok, egunez bizi behar dugu, nahikoa argirekin.

Aroa Etxeburua Ugartemendia | **Ixaso Orbegozo** | Imanol Ubeda | Aritz Gorriti | Luis Aranalde | Garazi Lizaso Manterola | Luken Arkarazo

### Ika-mika

## Etsipena? Nik bozkatuko dut

**A**zkenaldi honetan, Estatu espainoleko gertaerak nazka eta aspertzea zabaldu dituzte. Gurean ere. Seguraski, guztiok entzun dugu hau kalean, lantokian edo ikastetxean. Erantzukizunak bilatzearen, agian batek baino gehiagok ez bozkatzea pentsatu du horrela errudunak zigortuko dituelakoan.

Baina etsipena ez da bidelagunik egokiena. Eta gutxiago gurea bezalako bide luzean. Izan ere, jarrera honekin alderantzizko ondorioa lor dezakegu: ardura

gabe jokatu eta herritarren interesak alboratu eta alderdienak lehenetsi egin dituztenei bidea libre utzi eta euskal herritarren interesak defendatu eta hitza mantendu dutenei zigortu. Horregatik, nik bozkatuko dut. Dударik gabe. Bozka ezkertiarra eta subiranista emango dut.

Espainia ez da gure eremu naturala eta gainera inboluzio prozesu bat datorkigu handik; hala ere, han gurea denaren gainean erabakitzen dute. Bai nazioa, langile edo pentsiodun moduan. Estatuko alderdi han-

dien leloei erreparatzea baino ez dago ikusteko eskaintzen digutena: Espainia gehiago.

Bistan da beraientzat erosoago izango zela euskal herritarren ahotsa ez entzutea. Ezta katalanena ere. Horrek bai egiten die mina. Eta are gehiago euskal herritarrek subiranista katalanekin batera egitea. Horregatik da hain garrantzitsua indartsuak izatea. Horretan ere; giza mugimenduetan, herrigintzan, sindikalgintzan edota kalean bezala, instituzioetan ere. Azken finean, indarra erakusten dugulako. Esparru

guztietan. Subiranistak ez badaude, beste inork ez dituelako defendatuko euskal herritarren interesak. Non gogoia, han zangoa.

Ez al du merezi esfortzu txiki bat egitea? Are gehiago: lehen baino gehiago izango bagina? Berri txarra beraientzat, berri ona euskal herritarrentzat. Gainera, hurrengo urtean beste hirtzordua bat dugu eta gure begirada luzea da. Bai, nik bozkatuko dut.

**“Garxot”.**

# Mundualdia, ate joka

U surbildar guztien sor-terrien bilgune izango da frontoia azaroaren 9rako herritar talde bat Udalarekin antolatzen ari den Mundualdiaren harira.

Aurten, 60. hamarkadaren bueltan Estatuko herrialde ezberdinetatik gure artera heldutako herritarrengan jarri nahi da arreta. Usurbilen jaiotako nahiz kanpoan sortu eta Usurbilen bizitako herritarren lekukotzak bilduko ditu Udalak egitekoa den ikerlan batek. Atzera begira jarriko gaitu, elkar ezagutu, elkar aitortzan sakondu eta etorkizunera begira elkarbizitza osasuntsu eta kontzientea ahalbidetzeko.

Testuinguru honetan ospatuko da ate joka dugun Mundualdia. Ekitaldion bueltan:

## Mundualdia 2019

### Azaroak 7, osteguna

■ 19:00 Jon Maiaren hitzaldia Sutegin: "Extremaduratik bertsolaritzara: integrazio is-



Aurten, 60. hamarkadaren bueltan estatuko herrialde ezberdinetatik gure artera heldutako herritarrengan jarri nahi da arreta. Argazkia iazkoa da.

torio bat".

### Azaroak 9, larunbata

Frontoian:

■ 18:00 Alkatearen agurra.

■ 18:10 Zirimara eta Orbeldi

Dantza Taldearen emanaldia.

■ 19:00 Jakien dastaketa.

■ 20:30 Hezurbeltzak taldearen kontzertua.

Antolatzailea: herritar talde bat eta Usurbilgo Udala.

## Amiantodun hondakinen bilketa, Garberako Garbigunean

Hileroko zerbitzu berri bat eskainiko du San Marko Mankomunitateak Donostiako Garbera merkatalgunearen alboan kokatua dagoen Garbigunean, azaroaren 4tik aurrera partikularrentzat soilik; fibrozementuzko hondakinak eta objektuak, kopuru txikian biltzeko zerbitzua. Materialak aipatu Garbigunean uzteko baldintza batzuk bete beharko dira: hauskorra ez izatea; egoera onean egotea; desmuntatzeko beharrik ez izatea; ibilgailu berezirik gabe garraiatzeko modukoa eta manipularria izatea; gehieneko kopuruak gaintzen dituzten hondakinen kasuan, baimen berezia eskatu beharko da. Garberako Garbigunea ordutegi honetan zabalitzen dute: 10:00-13:00 /15:30-18:30.

## Ika-mika

# Pentsio Publiko Duinak. 1080 euro Gutxieneko Pentsioa.

Pedro Sanchezek bi aukera izan ditu azkeneko bi legealdietan. Nahikoa da promesekin ibiltzea, are gehiago hauteskunde aurretik. Oraindik ere, bete ditzake promes horietako batzuk-pentsiodunen mugimenduak adierazi genuen bezala-nahiz eta gobernua jarduneko egoeran egon.

Eskatzen diogu, lehenbailehen onartu edo dekretatu ditzala KPIaren igoera eta gutxieneko pentsioak 1.080 euro-tara igotzea urtarilaren 1etik aurrera. Hala ere, datozen hi-

labeteetan, gobernatzen duenak gobernatu, gure eskarien erantzun zehatza eta bidezkoa exijitzen diogu.

Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Nafarroako Pentsiodunen Plataformok oso positibotzat hartzen dugu euskal pentsiodunek eta beste erkidegoetakoek Madrileran egin duten ibilaldia eta horretaz pozten gara. Halaber, urriaren 16an Diputatuaren Kongresuaren aurrean egingadako kontzentrazio-manifestazioa ez da gutxiago izan, 20.000 pentsiodun elkartu baitzuten.

Astelehenero borrokan jarraituko dugu eta gainera indar handiagoarekin. Azaroaren 16an Herritar Mobilizazio Eguna antolatuko dugu, erakunde sindikalekin, emakume taldeekin, gazte eta beste eragile sozialekin batera Euskal Herriko lau hiriburuetan. Abenduaren 12an Gasteiz eta Iruñeko Legebiltzarren aurrean elkarretartuko gara. Eta urtarrilaren 12an mobilizazio are zabalago eta sakonagoa sustatuko dugu, aipatutako talde guztiekin batera. Gure eskaerak lehenago

aintzakotzat hartzen ez badira behintzat, udazkeneko eta neguko mobilizazio horiek antolatzeko eta sustatzeko arrazoien eta argudioen berri urriaren 22an eman genuen, Bilboko Udaletxeko eskailertan eskainitako prentsaurreko zabal batean.

Gobernatzen duenak gobernatu, pentsio publikoak defendatu.

**Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako Pentsiodunen Plataformak.**

# Txokoalde, auzoaren etorkizunaz erabakitzen hasia

**B**elaunaldi arteko topalekuan bilakatu zen urriaren 23an Txokoaldeko Akerra Gaztetxea. Auzoaren etorkizunaz hausnarrean aritu ziren auzotar gazte eta helduak, Usurbilgo Udalak deitu eta Hiritik At kooperatibako kideek dinamizaturiko parte hartze saioan. Prozesu baten abiapuntua izan zen. Auzoko bizitza hobetu nahi da eta horretarako Txokoaldeko dituen beharrak azalatu nahi dira, eta horiei erantzun, beti ere auzotarrak ardatz hartuta.

Udalak eta Hiritik At kooperatibak hiru saio proposatu dizkie txokoaldetarako. Lehenengo aurreko astean; auzoaren beharrak diagnostikatu eta behar horiei udalaren jabetzakoa den Akerra eraikinetik nola asetu identifikatzea helburu zuena, espazio hau proposatu baitu Udalak auzotarren bizitza hobetzeko Txokoaldeko erdigune eta bilgune gisa. Auzoan diren zerbitzuez hausnartu zuten, sumatzen dituzten beharrak eta behar horietatik zeintzuk ase daitezkeen lantzen aritu ziren.

## 2020ko udal aurrekontuan txertatua

Aurreko astekoaz gain, beste bi saio egitea aurreikusten dira laster. Lehen saioak identifikatutako beharrak kontuan izan-



Hiru saioko parte hartze prozesua igarota, hitzorduotan jasotako auzotarren ekarpenak proiektu batean bilduko ditu Usurbilgo Udalak.

## EGITASMOAK

**“200.000 euroko diru partida bat gorde du udal gobernu taldeak 2020ko aurrekontuetan, Txokoaldeko proiektua gauzatzeko”**

da, Akerra Gaztetxeko eraikinaren espazioaren antolaketaz hitza hartu eta erabakiko dute bigarren bileran. Hirugarren eta azken saioan, funtzionamenduaz, kudeaketaz ariko dira.

Hiru saioko parte hartze prozesua igarota, hitzorduotan jasotako txokoaldetarren ekarpenak proiektu batean bilduko ditu Usurbilgo Udalak. Proiektu hau landu ostean, berriro txokoaldetarako itzuliko zaie, hobekuntza proposamenak

egin ditzaten. “Proiektu xumea baina duina egin daiteke”, adierazi zien alkate Agurtzane Solaberrietak txokoaldetarako, estreinako saioan. Aurreikusituzenez, jada 200.000 euroko diru partida bat gorde du udal gobernu taldeak 2020ko aurrekontuetan, Txokoaldeko proiektu hau gauzatzeko.

## Txirikordaren dinamizatzailerak

Prozesua Hiritik At kooperatibako kideek dinamizatu dute. Lehendik ere Usurbilen antzeko prozesu gehiagotan lan egindakoak dira. Etorkizunean, Ugartondoko urbanizazio berrian kokatuko den belaunaldi arteko etxebizitza komunitarioaren, Txirikorda izeneko proiektua diseinatzeko gazteak nahiz adinekoak bildu zituen prozesua dinamizatu zuten urte hasieran.

## Greba orokorrerako deia

Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak biltzen dituen eragileek lan, pentsio eta bizitza duinen aldeko greba orokorrerako deia egin dute egunotan, 2020ko urtarrileko bigarren hamabostaldirako.

Eguna laster zehaztuko dute. Udazken parte honetarako deitutako mobilizazioen egutegiaren baitan finkatu duten hitzorduetako bat da.

Besteak beste, azarorako pentsiodunen mugimenduak

mobilizazioak iragarri dituzte hiriburuetan. Abenduan lan, pentsio eta bizi duinen aldeko mobilizazio gehiago. Eta aipatu moduan, 2020ko urtarrileko bigarren hamabostaldirako 24 orduko geldialdia.

## Aisialdiko diru laguntzak onartuak

Aisialdiko begirale edo zuzendari izateko ikastaroren bat egin eta Usurbilgo Udalak uda hasieran eginiko diru-laguntza deialdira eskerra aurkeztu zutenen behin betiko ebazpena kaleratu du Udalak. Guztira 11 eskaera aurkeztu ziren uda hasieran Usurbilgo Udalak eginiko deialdira. Haietatik 10 begirale ikastaroa egindakoak ziren, hamaikagarrena aisialdiko zuzendari ikastaroa egindakoa. Guztira, 1.967,50 euroko laguntza banatuko du Udalak.

## Euskaraldirako laguntzaileak

### behar dira

2020ko bigarren edizioa prestatzeko bolondresak behar ditu Usurbilgo Euskaraldirak. Lau lan talde osatu dira: denetariko entitateekin lan egiteko, ekintzak antolatzeke, edota koordinazio eta komunikazio lanak bideratzeko. Lan taldeetan izena emateko usurbil@euskaraldia.eus helbidera idatzi edo esteka honetako galdetegia osatzea eskatzen da: <https://forms.gle/urLU7xxi-26Jdc6RX7> edo

## Aurkezpena Kulturaldian

Euskaraldiaren estreinako edizioak Usurbilen izandako eraginaren gaineko azterlana osatu du Soziolinguistika Klusterrak Usurbilgo Udalak eskatuta. Azaroaren 6an 18:00etan Potxoenean aurkeztuko dira emaitzak.



Lan talde ezberdinak osatu dira.

# Espainiako Diputatuen Kongresurako hautagaiak

## EH Bildu

1. Mertxe Aizpurua Arzallus.
  2. Jon Iñarritu García.
  3. Esther Larrañaga Galdós.
  4. Juan Mari Olano Olano.
  5. Nerea Zubia Blázquez.
  6. Juan Ramón Garai Bengoa.
- Ordezkoak:
1. Ana Carrere Zabala.
  2. Iñaki Errazkin Vitoria.
  3. Itziar Ostolaza Galdós.

## PSE-EE/PSOE

1. Odón Elorza González.
  2. María Luisa del Pilar García.
  3. Jesús María Zaballos.
  4. Azahara Domínguez.
  5. Alfonso Gurpegui Ruiz.
  6. María Lourdes Acevedo.
- Ordezkoak:
1. Jon Iraola Iriondo.
  2. Gloria Vázquez Herranz.
  3. Jon Ugarte Petricorena.
  4. Aranzazu González San Vicente.

## EAJ-PNV

1. Joseba Andoni Agirretxea.
  2. Iñigo Barandiaran Benito.
  3. Txaro Rodrigo Montalvo.
  4. Itziar Alkorta Idiakez.
  5. Xabier Barandiaran Irastorza.
  6. Miren Garbiñe Mendizabal.
- Ordezkoak:
1. Miren Elgarresta Larrabide.
  2. Angel María del Hoyo Bravo.
  3. Ane Abarrategui Baamonde.

## Aulki Zuriak

1. Daniel Lizarralde Aguirre.
2. Nerea Icuza (Independiente).



Azaroaren 10eko hautes-zerrendak apirilekoen oso antzekoak dira.

3. Félix García Ramos.
  4. Amaya Larrea (Ind.).
  5. Antonio Alier Laplana (Ind.).
  6. Virginia Esther de la Parra (Ind.).
- Ordezkoak:
1. Emilio Gerardo Monfort (Ind.).
  2. Miren Lorea Uriarte (Ind.).

## Ciudadanos

1. José Manuel Gil Vegas.
  2. Isabel Gil Marrodán.
  3. León de Adrián Gallego.
  4. Naiara Landa Pérez.
  5. Ramiro Cibrián Uzal.
  6. Cristina Martín Andonegui.
- Ordezkoak:
1. Aitor Bilbao Rodríguez.
  2. Belén Navarro Moratalla.

## Euskadiko Langileen Alderdi Komunista

1. José Alberto Jiménez.
2. Laura Vázquez.

3. Eneko Lanz Llamas.
4. Carmen García Llamera.
5. Mikel Gallastegi Arevalillo.
6. Julia Fábrega Torrano.

## PACMA

1. Susana Pérez Benito.
2. Jon Orella Azcona.
3. Irene Azkarate López.
4. Rosa Ana Escudero Martínez.
5. Asier Esparza Billalabeitia.
6. Ana María Arcelus Casal.

## Elkarrekin Podemos

- Unidas Podemos**
- Pilar Garrido Gutiérrez.
1. Rafael Sainz de Rozas.
  2. Ubaldo Ortíz Rodrigo.
  3. Kelly Alba Holmwood.
  4. Carlos Rodríguez Rubio.
  5. Isabel Salud Areste.
- Ordezkoak:
1. Agustina Pedroche Rodríguez.

2. David Nuño García.

## Recortes Cero-Grupo Verde

1. María Ángeles Alberdi.
2. Roberto Gómez Egido.
3. Sergio Larredonda González.
4. María del Carmen Devesa.
5. Andrés Francia Miranda.
6. Nagore Blasco Bilbao.

## Bidezko Mundurantz (PUM+J)

1. Iratze Buztintza Vivanco.
2. Ignacio Lijo Sancho.
3. María Rosario Alonso.
4. Francisco Javier Barcina.
5. Arrate Masa López.
6. Iker Madina Lazurtegui.

## PP

1. Iñigo Arcauz Ascargorta.
  2. José María Murguiondo Casal.
  3. María Pilar Elías Zabala.
  4. Carlos Sancho Coscolluela.
  5. María Carmen Blasco Zuasti.
  6. María Asunción Guerra.
- Ordezkoak:
1. José Miguel Ochoteco.
  2. María José Lafuente Grasa.
  3. Patricia María Puértolas.
  4. José Javier Barcaiztegui.

## VOX

1. Juan de Dios Dávila Garijo.
2. María del Mar Martija.
3. José Manuel Menéndez.
4. Cristina Navarro Machín.
5. Pedro Ignacio Gandássegui.
6. Guadalupe María Ochoa.

(Ind).: independientea.

# Espainiako Senaturako hautagaiak

## EH Bildu

1. Gorka Elejabarrieta.
- Lehen ordezkoa: Lore Agirre.  
Bigarren ordezkoa: Eneko Maioso.
2. Olaia Duarte López.
- Lehen ordezkoa: Unai Iraola.  
Bigarren ordezkoa: Ane Arruti.
  3. Aitor Ibero Urbieta.

Lehen ordezkoa: Nekane Zinkunegi.  
Bigarren ordezkoa: Haritz Pérez.

## PSE-EE/PSOE

1. Lucio Hernando Albistegui.
- Lehen ordezkoa: María Arritokieta.  
Bigarren ordezkoa: Juan Manuel Serna.
  2. María Jesús Egido Moreno.

Lehen ordezkoa:  
Pablo Peñacoba Álamo.  
Bigarren ordezkoa:  
Mónica Martínez Notario.
  3. Enrique José Ramos Vispo.

Lehen ordezkoa: Lore Suárez.  
Bigarren ordezkoa: Patxi Elola.

## EAJ-PNV

1. María Isabel Vaquero.

- Lehen ordezkoa: Rafael Uribarren.  
Bigarren ordezkoa: María Eugenia Iparraguirre.
2. María Mercedes Garmendia.
- Lehen ordezkoa: Josu Ezkurdia.  
Bigarren ordezkoa:  
Irene Berasaluze.
  3. Luke Uribe-Etxebarria.

Lehen ordezkoa: Edurne Egaña.  
Bigarren ordezkoa:  
Jon Aldazabal Etxeberria.

## Aulki Zuriak (EB)

1. Luis García Molina.
- Lehen ordezkoa:  
María Nieves Serrano.  
Bigarren ordezkoa:  
Jesús María Ordóñez (Ind).
  2. María Cruz Pascual.

Lehen ordezkoa:  
Raúl Aperribay (Ind).

Bigarren ordezkoa:  
Zuriñe Durán Martín (Ind).
  3. Luis María Ormaetxea Santsiñena (Independiente).

Lehen ordezkoa: María Romaña

- Pascual (Ind).  
Bigarren ordezkoa: Andrés Juan Prado Serrano (Ind).

## Ciudadanos

1. Rocío Galiana Naranjo.
2. Javier Estévez Videira.
3. Mercedes Rodríguez Andrés.

## Euskadiko Langileen Alderdi Komunista

1. Jakes Iñarra Lasabagaster.

## PACMA

1. Iván Ruiz García.
2. Mónica del Río Barrón.

## Elkarrekin Podemos

- Unidas Podemos**
1. Javier Ezkerekotza Pajares.
- Lehen ordezkoa: Jesús López.  
Bigarren ordezkoa:  
María Teresa Santana Rubio.
  2. Nagore Basurto Escamilla.

Lehen ordezkoa: Unai Burguete.  
Bigarren ordezkoa:

- María del Carmen Salido Sierra.  
3. Encarnación Ramos Robles.  
Lehen ordezkoa: M. Ángeles García.  
Bigarren ordezkoa: David Soto.

## Recortes Cero-Grupo Verde

1. Jordi Martínez Rigol.

## Bidezko Mundurantz (PUM+J)

1. Agurtzane Iraeta Zabala.

## PP

1. Alejandro Saenz Muriel.
- Lehen ordezkoa: Blanca Tejada.  
Bigarren ordezkoa: Iñigo Manrique.
  2. Juana de Bengochea.

Lehen ordezkoa: Juan Carlos Cano.  
Bigarren ordezkoa: Marta Sánchez.
  3. Jacobo Caparrós Ruipérez.

Lehen ordezkoa: Inés Baroja.  
Bigarren ordezkoa: Borja Semper.

## VOX

1. Carlos María Bell Clerico.

(Ind).: independientea.

# Usurbil bizitarik gabeko herri batean bilaka ez dadin

Hurbilago Elkarteak uda partetik bezeroen fideltasuna saritzen ari da. Dakizue, herriko dendetan eginiko 10 euroko erosketa bakoitzeko pegatina bat jaso daiteke eta Hurbilagoren eskuorria osatzen joan. Eskuorria osatzen duten lehen herritarren artean, herri komertzioak bizirik segitzeko eginiko ahaleginagatik 100 euroko sariak banatzen ari da Hurbilago. Marisol Guerra, Isidra Navarro, Marijose Uribe, Isabel Uribe eta Saioa Erro izan dira azken sarituak.



Hurbilagoko zozketan, Marisol Guerra eta Marijose Uribe izan dira azken sarituetakoko batzuk.

Marisol eta Marijoserekin bildu da NOAUA!. Bigarrenez saritu dute Marijose, "oso pozik" agertu da bera eta Marisol. "Oso pozik naiz, zerbait tokatzen zaidan lehen aldia da".

Kontsumo ohiturak aldatzen doazen honetan, herri-merkataritzaren aldeko apustuan berresten dira herritarrok. Garrantzitsutzat jotzen dute, "herriko dendetan erostea, herriko komertzioak bizitza izan

## BERTAN EROSTEKO JOERA

**Herriko dendetan erosiz  
"dirua herrian gera  
badaiteke, askoz hobeto.  
Herri osoarentzat da  
onuragarria"**

dezan eta dirua herrian gera badaiteke, askoz hobeto. Herri osoarentzat onuragarria".

Herrian erosteak eskaintzen dituen onurak bat baino gehia-

go direla nabarmentzen dute. "Kalitatearen ikuspegitik ez du zerkusirik. Dendetara joan, generoa ikusi, aukeratu, dendariekin izaten den hartuema-na... Hartueman polita sortzen da. Haien lanpostuei ere eusten ari gara, bestela galduko dira".

## Itxieren beldur

Usurbilen bizi eta egunerokoan Usurbilen erosteko ohitura dute aspaldidanik eta kontsu-

mo ohitura hauei eustea ezin garrantzizkoagotzat jotzen dute, "bestela itxi egingo dira". Dagoeneko azken urteotan etxepeetako nahiz auzoetako saltokiak nola ixten joan diren lekuko zuzenak izan dira. "Auzoetako dendak ia desagertu dira. Saia gaitezen Usurbil bizitarik gabeko herri batean bilaka ez dadin. Hainbat herri txiki nola husten ari den ikus-teak pena ematen du".

## Herri-merkataritza plana eguneratzera doa Udala

Duela aste gutxi bildu zen legealdi honetan lehen aldiz merkataritza mahaia. 2009an Siadecok herriko merkataritza eta ostalaritza suspertzeko diseinaturiko plan berezia eguneratzea erabaki du Udalak duela hamar urte bezala, Siadecoren eskutik, ordutik kon-

tsumo ohiturak eta beste hainbat aspektu nabarmen aldatu direla ikusita. Horretarako 600 inkesta egingo dituzte telefonoz herritarren artean, hila-beteko tartean. "Modu aleatorioan, ausaz, aukeratuko dituzte herritar horiek: zein kontsumo ohitura dituzten

ezagutzea da helburua. Parte hartzera deitu ditu herritarrok udalak, guztien ekarpenak oso garrantzitsuak izango baitira herriko merkataritza eta ostalaritza biziberritzeko bidean". Merkataritza eta ostalaritza iriztiak ere bilduko dituzte. "Siadecoko langileak pertsonalki

joango dira lokaletara, euren asmoen berri eman eta merkataritza eta ostalaritza ekarpenak jasotzeko. Ahalik eta gehienekin bildu nahi dute, eta, horretarako, Hurbilagoko kide ez diren horiengana ere joango dira hitz egitera", Udalaren esanetan.

**txirriStra**  
TABERNA

-Plater konbinatuak  
-Ogitartekoak  
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

ETXETRESNEN  
KONPONKETAK  
eta SALMENTA

MARKA GUZTIAK  
azkar, prezio onean  
20 URTEKO ESPERIENTZIA

645417665

XABIER Usurbil

[www.noaua.eus](http://www.noaua.eus)  
USURBILGO ATARIA



**EUSKARALDIAREN IKERKETA** "USURBILGO EM AITZEN AURKEZPENA " azarotik 6, **ASTEAZKENA**, 18:00 Potxoenean **DOAN**

**POESIA ERREZITALDIA** "Ugaitz Agirre-ren poesia " azarotik 15, **OSTIRALA**, 19:30 Suteji **DOAN**

**DANTZA** "ORBEL JAUZIA emanaldia" Orbeldi Dantza Taldea azarotik 8, **OSTIRALA**, 19:30 Suteji **SARRERAK\***

**KALEJIRA-BERTSO BAZKARIA** "Maialen Lujanbio eta Igor Elortza bertsolariekin" azarotik 9, **LARUNBATA**, 12:30 Mikel Laboa plazatik **BAZKARI-TXARTELA\***

**KONTZERTUA** "IZAKI GARDENAK " azarotik 10, **IGANDEA**, 19:00 Suteji **SARRERAK\***

**SOLASALDIA** "Josune Arakistain, Huntza taldeko abeslaria" azarotik 12, **ASTEARTEA**, 19:30 Suteji **DOAN**

\***SARRERAK**: Aldez aurretik Bordaxon, Txirrisiran, lizaridin eta Noauidiko egoitza. Noauidiko bazkideek prezio berezian Noauidiko egoitza aldez aurretik.

\***BAZKARI-TXARTELA**: Bordaxon, Noauidin eta Alitzagan salgai soilik.

**ANTZERKIA** "Tabernaria " azarotik 16, **LARUNBATA**, 20:00 Suteji **SARRERAK\***

**PELIKULA** "AGUR ETXEBESTE" azarotik 17, **IGANDEA**, 19:30 Suteji **SARRERAK\***



**NOAUA!KO KULTURALDIA 2019**

**USURBIL  
AZAROA**



# “Adinaren kontua ez dadila aitzakia izan batukadan ez parte hartzeko”

**B**atukada feministan izen emateko azken egunak ditugu; azaroaren 5ean amaituko da izen ematea. Joan zen urteko arrakasta ikusita, aurtengo ikasturtea hasteko gogotsu dira antolatzaileak. Ainara Sarasketa irakaslearekin izan da NOAUA! ikasturte berriko dituzten asmoen berri izateko.

**NOAUA! Batukada feminista ikastaroa eman zenuten aurreko ikasturtean ere, eta emakume askok eman zuten izena. Oraingorako ere halako aurreikuspena egin duzue?**

**Ainara Sarasketa:** Ez daukat izen emateen gaineko berririk momentuz. Espektatiba altuak dauzkagu jarrita horretan, aurreko ikasturtean jende dezentek kanpoan geratu baitzen. Gogo horiekin jarraitzen badute eta aurreko ikasturtean eginitako jarduerak ikusi badituzte, nik uste dut gogoak areagotu egingo zirela. Zentzu horretan jende askok izena emango duela iruditzen zait.

**Edonork har dezake parte? Adina edo generoak garrantzia du?**

Jabekuntza eskolaren barne proiektua izanik, emakumeei



Azaroaren 5ean amaituko da batukada feministan izena emateko epea. Beste behin ere, Ainara Sarasketak gidatuko du ikastaroa.

## AINARA SARASKETA

**“Normalean 16 urtetik gorako emakumeekin egiten dugu lan eta hortik aurrera mugarik ez dago. 90 urteko emakume batek ere parte har lezake hala nahi izango balu”**

zuzentzen zaie. Adin aldetik, aurrekoan nahiko gaztetxoak izan ziren parte hartzaileak. Normalean 18 edo 16 urtetik gorako emakumeekin egiten dugu lan eta hortik aurrera mugarik ez dago. 90 urteko

emakume batek ere parte har lezake hala nahi izango balu. 70 urteko emakume dezente dauzkagu herri ezberdinetan banatuta. Guztira bost baino gehiago direla esango nuke. Adin hori dela kontuan hartuta askotxo dira. 60tik gorakoak ere asko dira, bai eta 50 urtetik gorakoak ere. Adinaren kontua ez dadila aitzakia izan ez parte hartzeko. Askok muga hori jartzen diote beraien buruari, zaharregiak direla eta. Inoiz ez da berandu musikan hasteko.

**Zein da ikastaroaren helburua?** Zortzigarren urtea dugu

proiektu honetan eta helburu ugari ditugu. Helburu orokor bat litzateke emakumeak berarentzat denbora izatea, zereginetatik kanpo. Disfrutatu, ongi pasa, lagunak egin eta talde-lanean zerbait sortzeko tartea izateko. Horrek ahalduntze prozesu bat sortzen du.

Guk dinamika batzuk lantzen ditugu ahalduntzea eta feminismoa lantzeko. Sozialki kaleak hartzea, indar erakustaldiak kanpora ateratzea eta lotsarik gabe gure gaitasuna erakustea litzateke beste helburu bat.

**Borroka feministari ekarpen zuzena egiten dio orduan.**

Bai, noski. Borroka feministari ekarpena egiten diogu, eta borroka feministak guri. Erabat erlazionatuta dago. Borroka hori eta bere irakaskuntzak erabiltzen ditugu ikastaroan bertan, dinamika batzuk egiteko talde mailan, eta maila pertsonalean. Egiten ari garenak lotura zuzena du feminismoaren borrokarekin, kalera ateratzen gara eta askotan manifestazio giro horretan: martxoak 8, azaroak 25, ekainak 28... Horrelako egun garrantzietan. Gure aletxoak jartzen dugu orduan.

## “Polita da ikastaroa kaleko saio batekin amaitzea”

**NOAUA! Pare bat erakustaldi egin dira batukada feministarenak azken hilabete hauetan, bata Usurbilgo jaietan eta beste Santuenekoetan. Halakoak egingo dituzue aurrerago?**

**Ainara Sarasketa:** Beti ikastaro bat egin eta gero helburuetako bat izaten da kalera ateratzea. Taldearen lanketaren arabe-

ra eta egoeraren arabera erabakitzen dugu. Ez dugu inor behartzen, kalera ateratzea ez da betebeharrak. Prest gaudenean egiteko zerbait da. Egoera baldin bada lanketa gehiagoren beharra dagoela, hori kontuan hartuko genuke. Normalean, ehuneko handi batean gogoia izaten dute parte

hartzaileek eta polita izaten da kurtso amaieran ikastaroa kale saio batekin amaitzea.

**Harrera oso ona izan zenuten bai Usurbilgo jaietako erakustaldian, bai eta Santuenekoan ere.**

Bai izugarria. Gure ikasleek lanketa handia egin zuten emanaldi horietarako. Gai-

nera, zinegotziari horrelako omenaldi bat ere egin zioten, bengalak, bertsoak, jantziak, dantzak... Kale ikuskizun hori beraien gauza propio bat izan zen. Batukada hor zegoen, baina kale emanaldi bezala ederra izan zen. Festetan eta kontzertuen ondoren izan zen gainera; oso polita benetan.

# “Euskal dantza tradizionalen oinarritutako ikuskizuna eskainiko dugu Sutegin”

**D**ata seinalatuak ditugu gainera Usurbilen azaroan, Mundualdia eta Kulturaldia izango dira jardunaldi luze eta jendetsuenak, beharbada. Orbeldi Dantza Taldeak hartuko du parte Kulturaldian. Kurtsoa hasi berri dute, eta aurtengo egutegiari begira hainbat emanaldi eta zeregin dituzte datozen hilabeteetan. Eli Eizagirre Orbeldi taldeko arduradunetako batekin izan da NOAUA! xehetasun gehiagoren berri izateko.

**NOAUA! Kurtsoa hasi zela ez da denbora askorik pasatu eta jada zenbait emanaldi dituzue. Nola hasi duzue kurtso berria? Jende askok eman al du izena aurteng?**

**Eli Eizagirre:** Gutxi gorabehera azken hiru edo lau urteetako kopuru berdintsuekin gabilta. 100 bat ume eta beste 80 bat heldu edo gaude gutxi gorabehera.

**Emanaldiei helduz, Kulturaldian parte hartuko duzue lehendabizi. Zer aurreratu dezakezue horri buruz?**

“Orbel jauzia” izena du ikuski-



Orbeldi Dantza Taldekoek 100 bat ume eta beste 80 bat heldurekin abiatu dute ikasturtea.

## AZAROAK 8 SUTEGIN

**‘Orbel jauzia’ izena ipini diote aurtengo saioari. “16-17 urtetik gorakook eskainiko dugu aurtengo emanaldia”**

zunak. Euskal dantza tradizionalen oinarritutako ikuskizuna izango da udazken giroan fokua jarrita. Euskal dantzen taldekook hartuko dugu parte, 16-17 urtetik gorakook osatzen dugun talde horrek eskainiko du emanaldia, haurrek ez.

**Abenduko Pirritx eta Porrotxen ikuskizunean ere parte hartuko duzue. Zer eskainiko**

**duzue?**

Pirritx eta Porrotxen ikuskizun berrian, herri bakoitzeko euskal dantza taldeak parte hartuko dute. Guri eskatu digute Usurbilgo emanaldian parte hartzeko, baina oraindik ez dakigu zer egin beharko dugun, ez ezer. Bileratxo bat hitzartuta daukagu beraiekin informazio hori lortzeko. Baieztatu diegu parte hartuko dugula, baina hortik aurrera ezer gutxi.

**Dantza Eguna ere urteroko egun handia izaten duzue. Antolatzeaz arduratzen zarete eta erakustaldia ere egiten duzue. Zerbait aurrera dezakezue?**

Apirilaren 4 eta 5ean ospatuko

dugu 2020ko Dantza Eguna. Datozen bileretan zehaztuko ditugu kontu gehiago. Momentuz hori baino ezin dezakegu esan.

**“Artisau Azokan postua jarriko dugu”**

**NOAUA! Azaroaren 1ean zerbait berezia egiteko asmotan omen zabiltzate.**

**Eli Eizagirre:** Egutegia atera dugu aurteng eta azaroaren 1eko Artisau Azokan postua jarriko dugu, bai Orbeldiko kamiseta eta poltsak saltzeko, bai eta egutegi berria aurkeztu eta salgai jartzeko ere. Ibai Arrietarekin osatu dugu egutegia; Orbeldiko kamisetarekin herriko txoko askotan atera ditugu argazkiak. Iruditzen zaigu herriko leku ezberdinak beste perspektiba batekin lantzeko aukera polita dela. Sutegiko emanaldian ere postua jarriko dugu, norbaitek erosi nahiko balu ere. Gure helburu nagusia da dauzkagun arropak erakustea, jostunek lan handia egin dute josten eta aberastasun hori jendaurrean erakutsi nahiko genuke.

## Sutegi bitan bete zuten

Sutegiko auditorioaren bueltan askotan ikusten ez den zaletu-ilara eragin zuten Joseba Tapia eta bere taldekideek. Urriaren 25ean bitan aritu ziren Sutegin, eta bi zuzeneko horietan oinarrituta disko bat argitaratuko dute laster. Kultur etxeko aretoa bitan goraino bete zuten. Emanaldi txalotuak izan ziren biak.



Joseba Tapiak bakarkako ibilbidearen erreposoa egin zuen.

# Usurbilen ere Sare Herritarra osatu da

**E**uskal preso, deportatu eta iheslarien eskubideen alde lan egiteko Sare taldea osatu da Usurbilen eta urriko azken ostiralean Mikel Laboa plazan egindako elkarretaratzean aurkeztu zuten. Kolektibo zabal honi “dagozkien eskubideak berrezartzeko bidean egingo dugu lan Sarekideok”, iragarri zuten.

Presoen urruntzea ahalbidetu eta mendekuan oinarrituriko 30 urteotako sakabanaketa politikaren amaieraren alde lan egingo dutela adierazi zuten. “Presoentzat ez ezik, beraien ingurune hurbilarentzat sufri-mendua, eta ondorio larriak, dakartza, heriotza barne”. Bizi osorako zigorra eta espetxealdi luzapena sustatzen duten salbuespen neurriak eta “espetxean egoteak ahalbidetzen dituen eskubide urraketari amaiera ematea bilatzen dugu”. Besteak beste honako hauek: guraso eta haurren eskubideak bermatzea, presoaren intimitatea babestuz harremanak eta komunikazioa gauzatzea, euskaraz mintzatu, komunikatu eta ikasteko eskubidea errespetatzea, ikasketak inolako trabarik gabe gauzatzeko eskubidea izatea, eta emakume presoek kasuan, emakume izate hutsagatik ematen diren urraketak amaitzea”.

## Norbanakoek osatutako sarea

Aurrerantzean antolatzeakoak dituzten ekimenetan parte hartzeko gonbita luzatu zuten. “Esandakoarekin bat egiten duen norbanako oro izango gara Sare herritar honetako puntu eta lagun”. Herritarrek izango dute protagonismoa. “Pertsona bakoitza sarearen puntu bat izanik, bakoitzak bere inguru naturalean egingo du lan, berdin eremu akademikoan, kulturean, kirolaren esparruan, herrian edota



“Pertsona bakoitza sarearen puntu bat izanik, bakoitzak bere inguru naturalean egingo du lan, berdin eremu akademikoan, kulturean, kirolaren esparruan, herrian edota auzoan”, Saretik aditzera eman dutenez.

## SARE USURBIL

**“Elkarren artean lotuko gaituena hauxe izango da; euskal preso, iheslari eta deportatu guztiak euren giza eskubideen jabe izatea”**

auzoan. Eta elkarren artean lotuko gaituena, aipatu dugun

lan komuna izango da; euskal preso, iheslari eta deportatu guztiak euren giza eskubideen jabe izatea”.

## Manifestazio nazionala urtarrilaren 11n

Urte hasierarekin batera Sarek presoaren eskubideen aldeko manifestazioa deitu ohi du Bilbon. 2020koa urtarrilaren 11rako finkatu dute, arratsaldeko 17:00etan abiatuko da La Casillatik, “Orain Presoak. Ate-

ra bidera” aldarripean.

## “Orain presoak zozketa”

Sarek eginiko zozketako zenbaki sarituak honako hauek dituzte:

1. saria: 078.364. Greziar irlertara kruzeroa.
2. saria: 036.523, Istambulera bidaiaria.
3. sarasa: 037.797. 2 pertsonentzako afaria Lizeaga Sagardotegian.

Informazio gehiago: [sare.eus](http://sare.eus)

## “Xua Gurasoekin Etxera” ekartzeko mozio aurkezpena osteguneko osoko bilkuran

“Xua Gurasoekin Etxera” herri ekimenak mozio bana aurkeztuko du Orio eta Usurbilgo Udaletan. Usurbilgoa ostegun honetan urriaren 31n 18:00etan egingo den osoko bilkuran, “Xuak hiru urte beteko dituenen bakarrik etorri ez dadin eskaerarekin bat egin dezatela galdegiteko” udal ordezkariari. Osoko bilkurara bertara joateko deia egin zuten urriko azken ostiraleko Mikel Laboa plazako elkarre-

taratzean. “Garrantzitsua da islatzea jada ehunka herritar ere atxiki direla. Horregatik dei egiten dizuegu udal-ple-nora agertzera”.

## 1.600 sinadura batu dituzte

Honez gain, herri ekimenak plazaraturiko manifesturako sinadurak biltzen segiko dute. Dagoeneko ia 1.600 lagun babesa jaso dute [change.org](http://change.org) atarian. Sinadura gehiago bildu edo arropa saltzeko ma-

haia jarriko du azaroan zehar herrian egingo diren hainbat ekitaldietan. Xua urtarrilean gurasoengandik bereizi ez, eta Usurbildik 600 kilometrorra, Valentziako Picassenteko espetxean aspaldi aske behar zuten baina preso segitzen duten Olatz Lasagabaster eta Patxi Uranga gurasoekin batera etxeratzearen alde lan egiten ari den herri bilgunea ekimen gehiago bideratzeko da aurrerago.

# Azaroaren lehena, oso bizi dator

Joandakoak oroitzeko azaroaren lehena, inoiz baino biziago datorkigu aurten Usurbilen. Egun osoan zehar izango da zer ikusi eta dastatua frontoian eta plazan.

## 24. Artisau Azoka

Bertako nahiz Euskal Herriko hamarnaka artisauen bilgune izan ohi den 24. Artisau Azoka antolatu du Aitzaga Elkarteak. Goiz eta eguerdi partean zehar, postuetatik osteratxoak egin eta erosketak egiteko aukera izango da, talogileen postuan hamaiketako goxoa dastatzearekin batera. Postuen artean ez da herriko ordezkariarik faltako: Zorione Mendezen marrazki lanena, Orbeldik egutegia eta materiala saltzeko postua ere jarriko du. Udarregi Ikastolaren DBH4-ko ikasleek ikasturte amaierako bidaiarako laguntza biltzeko gozogintza postua egokituko dute baita, "Bartzelonara ikas-bidaia egingo baitugu eta elkarlanean bidaia denontzat eskuragarriagoa izan dadin diru-bilketa egiteko. Bertan bizkotxo, gazta-tarta, madalenak, gailetak... izango ditugu salgai. Zuen zain egongo gara irribarre batekin!".

## Giza-proba

Egun pasa borobila antolatu digute aurtengoan. Goizean Aitzaga Elkarteak Artisau Azoka, eta bazkalostean giza-proba Usurbil Herri Kirol Taldeak.



Goiz eta eguerdi partean zehar, postuetatik buelta bat eman eta erosketak egiteko aukera izango da.

## GIZA-PROBA

**Dema plazan dagoen  
1.800 kiloko "Ur-epel"  
harriarekin lehiatuko dira  
Bizkaiko hiru talde**

Plazan dagoen 1.800 kiloko "Ur-epel" harriarekin lehiatuko dira Bizkaiko hiru talde: Txorierri, Lasuen eta Leioa. 1991n Bizkaiko eta Gipuzkoako 7 talde (usurbildarrez osaturikoa tartean) egindako saiakeraren marka hausten ahaleginduko dira. Orduko hartan, gernikarrak nagusitu ziren; 4 plaza, 2 zinta eta 65 zentimetrorekin. Oraingoan aipatu hiru

taldeotako bakoitzak marka hori ontzeko 30 minutu izango ditu duela 18 urte bezala. Talde bakoitza hiru kideez osatuko da. Asteotan noiznahi ikusiko dituzue Dema plazan entrenatzen.

## Sukaldaritza txapelketa

Eta giza proba ikusita, askari ederra dastatu baino plan ho-beagorik ez da izango ziur. Adi, Usurbilgo Gure Pakea, Santueneko Gure Elkarte eta Aginagako Arrate adineko elkarteek herri mailako sukaldaritza txapelketa antolatu dute azaroaren 1erako. Giza proba ospatu artean, legatza saltsan prestatzen ariko dira. Lehia-

kideak herriko gastronomia elkarteetako adinekoak izango dira, epaimahaiko kideak baita. Giza proba amaitzen denean, txapelketako kideek prestatutako pintxoak dastatu ahalgo ditugu, Lumagorridun Txokoaldeko Lartzandietako oilasko erredun zizka-mizkekin eta edariarekin batera. Orduan ospatuko da baita sari banaketa. Txapelduna, 2020. urtean Gipuzkoa mailan ospatuko den lehiarako sailkatuko da.

Arratsaldeko hitzorduei lotuta ohar bat; giza proba ikusitako txartelak egunean bertan eskuratu ahalgo dira Sutegiko mahaian. Pintxoaren dastaketarako txartelak aldiz, giza proba ospatzen ari den artean salduko dira.

## Bus-taxia

Ekitaldi guztion artean, bat baino gehiago izango da azaroaren lehenean hilerrira gerturatu nahiko duena. Usurbilgo Udalak bus-taxi zerbitzu bereziak iragarri ditu, 10:00-14:00 artean San Inazioko errotondatik hilerrira joan eta handik itzultzeko. 8 zerbitzu gutzira orduotan:

■ San Inazioko biribilguntetik hilerrirantz: 10:00; 10:30; 11:00; 11:30; 12:00; 12:30; 13:00 eta 13:30ean.

■ Hilerritik herrira: 10:15; 10:45; 11:15; 11:45; 12:15; 12:45; 13:15 eta 13:45ean.

## Azaroak 1 ostirala

■ 10:00-14:00 Hilerrira joan eta etortzeko Usurbilgo Udalen bus-taxi zerbitzu bereziak San Inazioko errotondatik.

■ 11:00 Artisautza Azoka frontoian. Antolatzailea: Aitzaga.

■ 17:00 Giza proba Dema plazan, Usurbilgo 1.800 kiloko

"Ur-Epel" harriarekin. Parte hartzaileak: Txorierri, Lasuen eta Leioa talde bizkaitarrak. Ekitaldirako sarrerak 5 eurotan egunean bertan Sutegiko mahaian salgai.

Antolatzailea: Usurbilgo Herri Kirol Taldea.

Babesleak: Usurbilgo Udala, Urbil, Saizar eta Alkartasuna Kooperatiba.

■ Bitartean, Usurbilgo sukaldari lehiaketako pintxoaren prestateta eta dastaketarako txartelen salmenta giza proban. Giza probaren ostean,

sukaldaritza lehiaketako pintxo eta edari dastaketa, eta Lartzandietako Lumagorridun oilasko erreen pintxoak.

Antolatzaileak: Usurbilgo Gure Pakea, Santueneko Gure Elkarte eta Aginagako Arrate adinekoen elkarteak.

# Erraustegiak eragindako kezkatatik, ama talde baten bularreko esnea ikerketapean

**H**aur jaio berrien eta amen arteko elikadura, emozio eta hartue-man iturri sendoenetakoa den ama-esnea ikerketapean da. Ikerketapean, Zubietan piztear duten erraustegiak eragin duen kezkatatik.

Gogoan izango duzue Zubietan Lantzenek erraustegiaren kutsagaiak neurtzeko abian duen ikerlana. Aipatu azpiegitura piztu aurretik inguruotako oilategietan laginak biltzen aritu ziren Holandako Toxicowatch fundazioko bi zientzialari. Erraustegia piztuko balitz, asmoa azterlan hau urtero errepikatzea da. “Bertako laborategi batekin elkarlan estua dute. Hemengo proiektua laborategiari aurkeztu ziotenean oso interesgarritzat jo eta ama-esnearen laginak hartzea are in-



“Denek irribarre batekin erraztasun guztiak jarri dizkigute, oso erraz animatu dira”, ekimen honen sustatzaileek adierazi digutenez.

## AMA-ESNEA, IKERGAI

### ***Ama talde batek bere bularreko esnea eman du Holandan ikertua izateko***

teresgarriagoa izango litzatekeela aipatu zuten”, adierazi dio

NOAUA!ri aipatu Holandako fundazioarekin interlokuzio lanetan ari den herritar taldeko kideetako batek, Maider Usabiagak. Proposamenari heldu eta lanketa bideratzeari ekin zion emakume talde batek Usurbilen. Bazuten kezka ia

zer harrera izango zuen ekime-nak amen artean. “Ikaragarri-ko energia positibo piloa jaso dugu. Denek irribarre batekin erraztasun guztiak jarri dizkigute, oso erraz animatu dira”, aipatu digu Usabiagak. Ama talde batek bere bularreko esnea eman du Holandan ikertua izateko. Berme guztiakin egin da prozedura; eman beharrezko urratsak egoki eman dituzte, beharrezko informazio eta argibideak jasotzearekin batera.

Ama talde honen jarrera go-raipatu dute. “Oso hartue-man intimoan daude etorkizunarekin. Lezio ederra eman digute”, gaineratu du. Erraustegia piztear duten honetan, “ama hauek erakutsi digutena da hainbeste kezkatu gabe gaiaz okupatu beharra dugula. Gure esku dagoena egin behar dugula”.

## Kezkatuak erraustegiaren eraginaren aurrean

Lan polita eta atsegina izan da herriko ama talde batekin izan duten harremana. “Eredu izan dira guretzat”, Usabiagaren esanetan. Tartean ziren lerrootako protagonistak; Koruko Eguren, Lide Arriaga, Onintza Gartzia eta Ainhoa Arrozpide. Iraila amaieran Zubietan Lantzeneko proiektuko parte hartzaileak haiengana jo zutenean, eskuzabalik hartu zuten ekimena, esker onez egitasmoa bideratzen ari den herritar bolondres taldea egiten ari den lanarekin eta gerora jasotako tratu goxoarekin. “Benetan kezkatua nago erraustegiaren gaiarekin, are gehiago orain, umeak izanda. Ideia oso ona iruditu zitzaidan erraustegiak zer neurritan eragingo digun jakitea”, adierazi digu Lidek. “Zergatik ez?” dio Korukok,

“nire esku dagoen ekintza simple batekin agian gauza asko jakin ditzakegu. Gainera, badirudi erraustegia eraikia dagoenez onartu beharra dugula. Aurka egiteko ekintza xume bat izan da”.

Ildo beretik, Onintzaren esanetan, “erraustegia geratzeko lan handia egiten ari dira eta eskertzekoa da. Halako ekimen bat antolatuta, lagundu badezaket aurrera”. Ainhoak adierazi digunez, “lehendik ere oso argi nuen errauste plantak ez diola inongo mesederik egingo” ekonomiari, ingurumenari eta osasunari. Ikerlan honi buruz hausnartuta, “hain da berezia eta onura askokoa bularra ematea bai amarentzat eta haurarentzat. Askok kezkatzen nau errauste planta batek hori kalte dezakeela pentsatzeak,

beste batzuen utzikeria eta arduragabekeriagatik”. Berak argi du “gurasoek utzitako mundu bera edo ahal balitz hobe utzi nahi diot semeari. Eta oso garbi daukat errauste planta honekin ondorengoei ez diedala mundu hobeago bat utziko”. Kezka honek bultzatuta parte hartu du ikerlan honetan eta bularra urtebete barru ematen segiko balu, “berriro ekarpen hori egingo nuke” adierazi digu.

### **Ondorengo belaunaldiak**

Behar balitz erraustegiaren eragina frogatzen segitzea beharrezkotzat ikusten dute. Amatasunetik kezka hori bizi asko baitute. Ikerlanak etorkizunean erraustegiak ama-esnea kaltetzen duela frogatuko balu, galdera bat bueltaka amahuen artean; “hobe izango

da formulako esnea bularrekoa baino?”. Hala gertatuko balitz, “gure ondorengoei izango dituzten seme-alabek jaso dezaketan esnearen kalitatean eragingo balu, oso larria litzateke”, Ainhoaren esanetan. “Inpotentzia handia sortzen du haurra jaiotzen den unetik amaren esnea agian kaltetua eman dezakegula pentsatzeak”, dio Korukok. Mingarria eta larria. Ainhoaren esanetan, ama-esnea emateko une berezi hau “zapuztu edo kaltegarria izatera iritsi daitekeela pentsatzea, beste batzuen utzikeria eta arduragabekeriagatik. Inork ez du hori kaltetzeko eskubiderik”. Onintzak gaiak duen garrantziaz ohartarazi digu; “bularra ematea erabakitzen duenak sei hilabetez haurrak hori bakarrik hartzen du. Ez du beste aukerarik”.

# “Osasun arazoak eragin baditzake, zergatik doa proiektua aurrera?”

Larrialdi klimatikoaren gaia pil-pilean dugun honetan, klima aldaketaren adibide argi bat etxean bertan izango dugula gogorarazi digu ama talde honek. Eta zentzu horretan, Zubieta Lantzenen “ekimen hau horren aurkako gure ekarpen txoa ere bada”.

Erraustegia eraikia dago, laster piztuko omen dute. Bizi dugun egoeraren aurrean, ama talde honetan behin eta berriz hitz bera aipatzen da; kezka. “Etengabeko kezka” izango dela. “Osasun arazoak eragin baditzake, zergatik doa proiektua aurrera? Hemen bizitzeko baldintzarik egokienetan egongo gara?”, ama taldeak planteatzen dituen kezka gaitako batzuk. Galdera hauek mahai gaineratu orduko, kezkarekin batera inpotentzia sentimendua, haurrei ematen ari zaien ama-esnean eraginik izan dezakeela eta.

Inpotentzia eta mina senti-



Inpotentzia eta mina sentitzen dute amatasunetik, azpiegitura hau martxan jartzera doazela ikusita.

## ONINTZA GARTZIA

**“Proposatzen dira alternatibak eta ez dira aintzakotzat hartzen. Zeharo inkoherentea da”**

tzen dute amatasunetik, azpiegitura hau martxan jartzera

doazela ikusita. “Proposatzen dira alternatibak eta ez dira aintzakotzat hartzen. Zeharo inkoherentea da”, Onintzaren esanetan. Eta “kutsatzea mingarria, erraustegiaren aurrean alternatibak daudenean. Lehendik kezkatua nintzen baina ama naizenetik kezka bat gehitzen zait”. Kezka ahotan

gehien hartzen duten hitza, Osasuna eta Erraustegia Ikerketa Taldeak azken urteotan kaleratu dituen nazioarteko zientzialari eta aditu ezberdinen ikerlanen aurrean, edota hemendik hurbil, Zabalgarbiko erraustegiaren inguruetan egin diren behaketen emaitza kezkarrien berri izanda.

## “Bakoitzak ahal duen neurrian lagundu dezala erraustegia geratzen”

Aurrera begira, nola jorratu orain jaio eta urteotan hazten joango diren haurrekin, ikastolatik atera eta herrira jaisterakoan egunero begi bistan duten erraustegiaren gaia? Mingarritzat jotzen duten gaia seme-alabekin ahotan hartzeko uneaz hitz egin digu elkarrizketatu taldeak. “Errauste plantaz galdetuko duten eguna helduko da eta azaldu beharko diegu. Oso kontraesankorra izango da. Etxean gaika bilduko dute, erreus gutxi aterako dute ontzian eta horren parean zer kalte jaso dezaketen oso mingarria izango da”, Ainhoaren esanetan. Erraustegiaren alde egon

daitekeen gurasorik balego, “zer erantzungo liekete haurren galdera hauei?” planteatu digute.

Are gehiago orain erraustegia piztear duten unetik aurrera. Ama talde honi garrantzitsua iruditzen zaio, bizi dugun egoeraren aurrean, haiek bezala bakoitzak ahal duen ekarpena egitea. “Bakoitzak ahal duen neurrian lagundu dezala erraustegia geratzen eta ondokoei errealitatea zein den ikusarazten”, adierazi du Onintzak. Iku-sarazte horretan “informatzeko, ez politizatze” deia egin dute. Ainhoaren iritziz, egun dugun demokrazia edo parte hartze eredu ere auzitan jarri

du gai honek, “ea kudeaketa eredu hau utzi nahi diegun seme-alabei”. Kezka eragiten duen erraustegiarena bezalako gai baten bueltan adostasun zabal bat ez dagoenean, beste erabateko kudeaketa bideratu behar dela uste baitu. Lau urtean behin bozka ematetik haratago, “beste parte hartze prozesuak ireki behar dira. Herritarrak ahaldu behar gara gai askotan”.

### Kanpaina

Egun gutxi barru amaitutzat emango da Zubieta Lantzenen ikerlanerako asteotan abian izan den crowdfunding bi-

dezko diru biltzea kanpaina. Aste hasierarako jada, 10.745 euro jasoak zituzten. Baina erronka betetzeko laguntza gehiago beharko da; 13.000 eurora heltzeko erronka finkatua zuten arren, ama-esnearen inguruko ikerlan hau finantzatzeko laguntza gehiago beharko da. Bideotatik eman daiteke laguntza:

■ Web orria:

[vkm.is/erraustegiarenkontrola](http://vkm.is/erraustegiarenkontrola)

■ Zubieta Lantzen elkartearen kontu zenbakia:

ES45 2095 5069 06 1064132086

■ Laguntza biltzeko mahaia Sutegin, azaroaren 1eko Artisan Azokan.

# afari maridatua



Euskal  
Sagardoa  
eta bertako  
produktuekin



Andazpe Elkartean  
azaroaren **12an** · 20:30 ean

# Usurbil

Afari txartelak salgai Noaua-n (20€-an)



# Euskaraldiak Usurbilen utzitako arrastoa azaleratzera goaz

Usurbilek izena emandu 2020ko Euskaraldirako, prestaketa lanak ere abian ditu. Baina estreinako edizioak gure artean izandako eragina ezagutzeke dugu oraindik. Gogoan izan, Usurbilgo Udalaren enkarguz, Soziolinguistika Klusterrak gai honi buruzko azterlana egin zuela, herriko Ahobizi eta Belarriprestok, iazko Euskaraldia hasi aurretik, amaitu berrian eta hiru hilabetera bete genituen galdeketetan oinarrituta.

Emaitzak ezagutzeko ordua heldu da. Euskaraldiko ikerketako datuen aurkezpena, azaroaren 6an 18:00etan Potxoenean. NOAUA!-ren aurtengo Kulturaldiko lehen hitzordua izango da. Euskaraldiko bigarren edizioa jendaurrean aurkezteko baliatuko da ekitaldi bera. Gogoan izan, entitateen parte hartzea sustatuko dela oraingoan.

## Datozen deialdiak

■ Azaroak 6, 18:00 Euskaral-



Azaroaren 6an Euskaraldiko bigarren edizioa aurkeztuko da jendaurrean, 18:00etatik aurrera Potxoenean.

## AZAROAK 6 ASTEAZKENA

**Euskaraldiaren lehen edizioak Usurbilen izandako eraginaz arituko dira Potxoenean, 18:00etan hasiko den hitzaldian**

diaren lehen edizioak Usurbilen izandako eraginari buruzko azterlanaren eta 2020ko Euskaraldiaren aurkezpena Potxoenean.

■ Azaroak 12, 17:00 Euskaraldiko herritar batzordearen bilera irekia Potxoenean.

■ Asteotan lan talde bakoitzak bere aldetik biltzen eta lanean segiko du. Lan taldeetan izena emateko helbide honetako galdetegia bete: <https://forms.gle/urLU7xxi26Jdc6RX7>

## Argibide gehiagorako:

[usurbil@euskaraldia.eus](mailto:usurbil@euskaraldia.eus)  
[usurbil.euskaraldia.eus](http://usurbil.euskaraldia.eus)

## Arrasto nabaria

### Euskal Herrian

Euskal Herriko emaitzak aurkeztu ziren udazken hasieran. 20 puntu egin zuen gora euskararen erabilerak Euskaraldiko 11 egunetan, eta hiru hilabetera “proportzio altuan eutsi egin” zitzaizen ekimeneko 11 egun horietan abiarazitako hizkuntza ohiturei lotutako aldaketei, “abiapuntuko maila baino 5,6 puntu gorago geratu da”.

Hala diote Euskaraldiko sustatzaileek iazko urte amaieran 225.154 lagunek Euskal Herrian egin zuten ariketa kolektibo hari buruz egin duten ikerlanaren emaitza nagusiek. 18.383 lagunek parte hartu zuten ikerketan. Galdetegiaren batera, Euskaraldiko ikerketaren egileek, 20 herri hautatu eta bertako antolatzaile eta herritarren artean, 453 lekukotza bildu zituzten.

Hizkuntza ohiturak euskalduntzea zuen xede nagusia Euskaraldiak. Helburua bete den edo ez, plazaraturiko ikerketak argitu du. “Euskaraldia gai izan da hainbat harremanetan hizkuntza jokiera berriak finkatzeko”.

# Gipuzkoa, gazteak eta Belarriprest-ak

Herrialdeka, euskara gehien Gipuzkoan eta Ipar Euskal Herrian erabili da. Aldiz, erabileran hazkunde handiena, “euskaraz gutxien erabiltzen zutenak zeuden eramuetan nabaritu da, Araban, Bizkaian eta Nafarroan”. Adin tarteei erreparratuz gero, gazteak nabarmen-tzen ditu ikerketak. “16-24 urte arteko gazteak Euskaraldian zehar euskara erabiltzeko joera handiena erakutsi dutenak izan dira, baina era berean horiek izan dira Euskaraldia amaitu eta hiru hilabetera jaitziera handiena izan dutenak ere”.

## “Euskaraldiak Belarripresten jokaera aktibatu du”

Ahobizien parte hartzearekin batera, Belarripresten irudia ere gorai patzen du Euskaraldiko ikerketak. “Euskaraldiak Belarripresten jokaera aktibatu du beren konpromisoak eskatzen zuenetik harago, Euskaraldiari esker euskara gehiago erabili baitute”.

Euskaraldiaren indarguneei dagokienez, parte hartzaileek haientzat jabekuntza ariketa izan dela diote. “Ohartu dira norberak uste baino gutxiago erabili ohi duela euskara, bai

eta inguruan dauden euskaldunak uste baino gehiago direla ere. Taldetasuna sortu da, eta parte hartzaileek babesa sentitu dute hizkuntza ohiturak aldatzeko ahaleginean”.

Halere, Euskaraldiko mezuak euskal komunitatetik erdaldu-nera behar bezalako jautzia ez duela eman ohartarazten du. “Bestetik entitateen aldetik en-gaiamendu falta sentitu duenik ere bada. Ekimenari babesa agertu arren, hizkuntza erabileran aurrerapauso handirik ez dute erakutsi entitate horiek praktikan”.

## “Eutsi diezaiogun antolaketari lanei”

Emaitza hauek aztertu eta hurrengo ekimenetarako ikasgaiak ateratzeko gonbita luzatzearekin batera, ikerketak 2020ko azaroaren 20tik abenduaren 4ra ospatuko den bigarren Euskaraldira begira jarri nahi gaitu. “Orduan izango dugu aukera ikerketan ikasitakoak praktikan jartzeko. Eta bitartean eutsi diezaiogun denok herriz herri antolaketari lanei”.

## Informazio gehiagorako:

[euskaraldia.eus](http://euskaraldia.eus)

# Herri ordezkaritza zabala, 24. Lasarte-Oria Bai! Krosean

Urriaren 27an Zubietako Kaxkoa ere zeharkatu zuen Lasarte-Oriako Ostadar S.K.T.-k hainbat eragileen laguntzaz (tartean Zubietako Herri Batzarra) antolaturiko lasterketa herrikoian hainbat herritarrek parte hartu zuten. Hemen sailkapena:

## Roller Herrikoia

### Usurbil

10-Carlos Jimenez Goya 00:19:54

## Ipar Martxa Herrikoia

### Usurbil

46-Xabier Zaldia Otegi 00:49:16

## 24. Kros Herrikoia

### Aginaga

293- Ander Aristegi 00:46:56

### Zubietako

344-Ander Askorreta 00:48:15  
427-Unai Zaldia Vega 00:50:20  
475-Irati Izagirre 00:51:27



Eguraldia lagun izan zuten korrikalariek. Argazkia: Txintzarri.

551-Ander Jauregi 00:53:42  
698-Alfonso Perez 00:59:41

### Usurbil

28-Iñaki Añorga Unanue 00:35:43  
75-Mikel Otaegi Irastorza 00:39:00  
82-Axier Dominguez 00:39:16  
136-Rosa Uribe Navarro 00:41:53

139-Irati Larrañaga 00:41:59  
166-Izadi Azkonobieta 00:42:51  
193-Ander Aisa 00:43:46  
194-Ander Orena Irureta 00:43:46  
196-Guillermo Rueda 00:43:50  
202-Ekain Salegi 00:44:00  
214-Erramun Erro 00:44:28  
232-Julen Lazkano 00:45:09

233-Jokin Rezola 00:45:12  
234-Aitor Jauregi 00:45:14  
260-Lukas Arrospide 00:46:04  
269-Maddi Olaetxea 00:46:26  
273-Gorka Etxeberria 00:46:28  
322-Oliver Garcia Linares 00:47:44  
324-Daniel Hernandez 00:47:50  
400-Borja Chamorro 00:49:30  
455-Sebas Alzas Rubio 00:51:00  
466-Xabier Arruti Lizaso 00:51:12  
468-Asier Iruretagoiena 00:51:19  
476-Martin Alustiza 00:51:27  
487-F.Javier Rodriguez 00:51:58  
546-Haritz Arruti 00:53:31  
550-Intza Makuso 00:53:40  
556-Gema Molina Cuesta 00:53:57  
560-Ana Mediavilla Perez 00:54:17  
574-Maximo Garcia 00:54:59  
575-Sergio Garcia Sierra 00:54:59  
593-Eduardo Jauregi 00:55:38  
678-Joana Lertxundi 00:58:59  
688-Aitor Canseco Palos 00:59:16  
713-Maialen Esoain 01:00:08  
723-Borja Carramiñana 01:00:24  
749-Isabel Amo Arias 01:04:54  
751-Ruben Cabaco 01:04:56

## Informazio gehiago:

ostadarskt.eus/krosa/



Aurreko larunbatean ospatu zuten 1969an jaio zirenek, 50. urtemuga festa. Artzabalgo plazan ateratako talde argazki honetarako bildu ziren Atzegara bazkaltzera joan aurretik.

## Energiari buruzko jardunaldiak

Energiaren inguruko jardunaldiak antolatu ditu herritar talde batek asteotarako, hausnarketa eta eztabaidarako. Hurrengo hitzordua:

### Azaroak 8, ostirala

- 18:00 Hitzaldia Potxoenean. "Usurbilgo autohorni-kuntza azterketa".
- Hizlaria: Jesus Calvillo.
- Antolatzailea: herritar taldea.

**URDAINTZI S.L.**  
Eraikuntzak  
urdaintzi@euskalnet.net 649 43 54 75  
IT-ak egiten dira 943 36 72 64  
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

Josue  
Igeltseritza  
606 37 21 05  
Atallu pol.28 USURBIL

**Uraitz, s.l.**  
Igeltseritza Orokorra  
693 059 392  
uraitz@uraitz.com USURBIL

**Iñaki Iturgintza**  
BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMAILEA  
ITURGINTZA • ENERGIA BERRITAGARRIAK  
info@inakiiturgintza.com - www.inakiiturgintza.com  
600 024 825

# Denboraldi hasiera bikaina

Aurreko denboraldia amaitu bezala abiatu du aurtengoa Usurbil Judo Klubak; bikain. Taldetik berri eman dutenez, "irailean jokaturako bi Espainiako Superkopetan (Valentzia eta Iruñea) 6 domina lortu dira".

Urrian Hernanin jokaturako Gipuzkoako senior txapelketan Usurbilek urrezko 6, zilarrezko 1 eta brontzezko 3 domina lortu ditu, "horrela 14 pisuetatik 6 urre lortuz eta hurrengo taldeak berriz 3". Gipuzkoako Txapelketan lehiatu ziren gero Usurbilgo klubeko alebinak. "15 taldeek parte hartu zuten eta Usurbilgo taldeak urrezko domina eskuratu zuen. Amets Alkortaren, Ioritz Maritxalarren



Irailean jokaturako Espainiako bi Superkopetan 6 domina lortu dituzte.

eta Mañel Lizasoren jokaera ona nabarmendu behar da", judo taldetik aditzera eman dutenez.

Aurreko denboraldiaren ildo beretik segitzen dute. Aurrekoan, "25 domina lortu zituen Federatutako txapelketetan. Euskadikoetan 23 domina eta

8 Espainiako txapelketetan", Usurbilgo taldetik zehaztu dutenez. 48 kiloz azpikoen mailan lehiatu zen Mafer Carazas judoka nabarmentzen du. "Espainiako Junior Txapelketan urrezko domina lortu zuen eta brontzezkoa Espainiako Senior Txapelketan".

# Zubieta, Endika Abrileko txapeldun



Iraila hasieratik jokoan izan den errebote txapelketako final handia urriaren 27an jokatu zen Villabonako plazan. Zubieta nagusitu zen, Hazparneko Noizbait taldearekin izandako lehian. Azken emaitza; 13-8. Zorionak!

## Futbola Haranen

### Azaroak 1, ostirala

■ 10:00 Infantilak, 1. maila: Udarregi-Usurbil F.T. B. -Ostadar SKT "A".

■ 12:00 Kadeteak, 1. maila: Usurbil F.T.-Euskalduna

■ 16:30 Jubenilak, 1. maila: Usurbil F.T.-Antigua Luberri

■ 18:30 Erregionalak, 1. maila: Usurbil F.T.-Ordizia KE

### Azaroak 2, larunbata

■ 11:00 Kadete neskek, 1. maila:

Usurbil F.T.-Martutene KE

## Eskubaloia Oiardon

### Azaroak 2, larunbata

■ 17:15 Jubenil mutilak, Euskal Liga (Euskadiko Txapelketa): Usurbil K.E.

BM Bidasoa Irun

■ 19:00 Kadete mutilak, Euskal Liga (Euskadiko Txapelketa):

Usurbil K.E.

Zaisa Bidasoa Irun

## Azaroaren 1ean, giza-proba Dema plazan

■ 17:00 Giza-proba dema plazan Usurbilgo 1.800 kiloko "Ur-Epel" harriarekin. Parte hartzaileak: Txorie-ri, Lasuen eta Leioa talde bizkaitarrak. Ekitaldirako sarrerak 5 eurotan egunean bertan Sutegiko mahaian salgai.

■ Antolatzailea: Usurbilgo Herri Kirol Taldea.

■ Babesleak: Udala, Urbil, Saizar eta Alkartasuna Kooperatiba.

**ZALDIGAIN**  
ERREMENTARIA

- Burnia, inox, altzairua eta corten altzairuarekin lan egiten dugu.
- Barandilak, balkoiak, eskailera dekoratiboak, solairuarteak...

www.zaldigain.com • info@zaldigain.com  
Tfno. 943593303 • Mugikorra: 677463867  
Fax. 943300045

ARRANDEGIA  
**PELLO**  
ASTEARTETIK-LARUNBATERA

8:30-13:30

EGIN ZURE ESKAERAK WHASTAPP-ETIKI!  
650 31 31 91 USURBIL

**ZENDOIA ENEA** taberna  
Kale Nagusia 35, Usurbil

**BORDATXO**  
taberna

**Pintxo Bereziak**  
943 37 10 42  
Zubiaurrenea 5

## ETXEBIZITZA

## Salgai

Etxebizitza salgai Kalezarren: 79m<sup>2</sup> berritua, 2 gela, komuna, sukaldea, jangela, egongela, harrera. Dena kanpoaldera. Ganbara handia partekatua. 35m<sup>2</sup> garaiea aukeran. 686462705

Etxebizitza salgai Santuenean: 2 gela, sukalde handia, egongela, komuna, bi balkoi, egongela. Argitsua, dena kanpoaldera. Etxeko eta komunitateko obra guztiak eginak. Trasteleku pribatua portalean. 677471648

Pisua salgai kale nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela, komuna, kalefakzioa. Iggailurik gabe. Dena berritua. Tximinia jartzeko instalazioa ere berria. Fatxada ere bai. Tel. 695 705 905.

Etxebizitza egin daitekeen 61 metro karratuko lokala salgai Munalurran. Nahi izanez gero, lizentzia, proiektua eta etxebizitza egiteko aurrekontua eskuragarri. 943 916 182 (Jon)

Etxea salgai, Zubiaurrean. 70 m<sup>2</sup>. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Balkoia trasteleku. Dena kanpora. Fatxada eta teilatua berritua. 688 779 465.

3 logela eta ganbarako etxebizitza salgai edo alokairuan Aginagan. Berritu berria, eguzkitsua eta lasaia. Tel. 650450869

Etxea erosi nahi dut Usurbilen. Kaxkotik gertu dagoen auzo batean. Gehienez 100.000 euro ordaintzeko prest. Tel. 666 770 851

Etxebizitza eta garaiea salgai. Biak batera edo aparte. 3 logela, sukalde-egongela, 2 bainugela. Etxebizitzak 78 m<sup>2</sup> eta garaieak 50m<sup>2</sup>. Tel. 676 453 176.

Pisu bat salgai Kale Nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 bainugela. Dena kanpoaldera.

## OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharra doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / [erredakzioa@noaua.eus](mailto:erredakzioa@noaua.eus)

Oharra bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goialdean ipiniko ditugu berriak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

Ganbara prezio barruan. Prezioa: 205.000 euro. Tel. 629 631 838

## Alokairuan

Etxebizitza baten bila gabilta. Baseri bat zainduko genuke aukeran. Familia bat gara, bi seme ditugu eta euskaldunak gara. 630 335 561.

Usurbilgo Kale Nagusian etxea partekatzeko lagun baten bila nabil. 26 urteko neska gazte bat naiz eta elkarbizitzeko pertsona zintzo eta arduratsua. Ekainetik aurrera sartzeko. T616 027 636

Marradun garaje bat alokairuan Bizkarre auzoan. Tel. 696 014 585

Alokairuko pisu baten bila gabilta. Bi neska gara, biak lanarekin, arduratsuak eta garbiak. 688893668

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel. 620 708 265 / 686 143 786.

Logela bat alokatuko nuke. Mutil langilea, serioa eta arduratsua. 651 197 381 / 632 138 393

Alokatzeko pisu merke baten bila gabilta, bikote bat gara, biak lanarekin, informeak ditugu. 675595294

Logela bat alokatuko nuke. Neska bat naiz eta lanean ari naiz. Arduratsua eta garbia. 612 487 017.

3 geletako etxea alokairuan; 600

euro gehienez. 665319105.

## MOTORRA

## Salmenta,

## garaieak

Yamaha Virago 250 XV motorra salgai eta osagarriak opari. 990 euro. 617701173.

Santuenea auzoan trastero txiki baten bila nabil. 626 735 354

Kale Nagusian garaje bat salgai. Ez da garaje itxia. Prezioa negoziagarria. 667336405.

Atxegalden garaje bat erosi edo alokairuan hartuko nuke. 653014518

Garaje itxi bat alokatzen da Errekatxiki kalean. Tel. 616 235 366.

Alokairuan 50m<sup>2</sup>-ko lokal/garaje bat Atxegalden. Autoak sartzeko atearekin. Goiko kalea 2. 676453176

Baju bat alokatzen da Munalurra, 4ean. Tel. 652 765 583

Garaiea salgai Txaramunto kalean. 23 m<sup>2</sup>, ate elektriko eta itxia. 615744628.

34m<sup>2</sup>ko lokal komertzial bat alokatzen da Errekatxiki 5ean. 695723192

2 garaje marra alokairuan edo salgai, Olarriondo 4an. Banaka edo biak batera. Telefonoa: 663 031 803

## LANPOSTUAK

## Lan eskaintzak

Game Masterra behar dugu Quantum Escape Room-en. Gaztea bazara, eta jokoak nahiz ihes gelak gustatzen bazaizkizu bidali [CVinfo@quantum.eus](mailto:CVinfo@quantum.eus) helbidera

Usurbilgo neska edo mutil bat behar dugu, ingeleseko klase partikularrak emateko. 608201745

Txiriboga tabernan asteburutarako langileak behar dira. Interesatuok hona deitu: 629 951 931.

Sukaldari laguntzaile bat behar dugu Lukainategi erretegian. 680 483 164

Zerbitzaria behar da Lasarteko taberna baterako. Interesatuak deitu telefono honetara: 607110365.

Finantza eta aseguruetakokudeatzailea behar da Buruntaldean. Baldintzak: Esperientzia gabe aseguruetan, prestakuntza enpresaren kontura eta kotxearekin. Betebeharrak: profesionaltasuna eta seriotasuna, lanbide-heziketa eta baldintza onekin. Tel. 699 760 873

Udarregi Ikastola partikularrak emateko prest dagoen jendearen zerrenda eguneratzen ari da. Partikularrak emateko prest egongo bazina, bidali mezu bat: [gorputzaldiak@udarregi.eus](mailto:gorputzaldiak@udarregi.eus)

Zerbitzari eta sukaldari laguntzaileak behar dira Aratz erretegian, [info@restaurantearatz.com](mailto:info@restaurantearatz.com)

## LANPOSTUAK

## Lan eskaerak

Haur edo adinekoak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. Arduratsua eta ama dena. Baita ere garbiketarako. 602568090 658706345

Lan bila nabil. Helduak edo

umeak zaintzen, edo garbiketan. Berehala lanean hasiko nintzake. Tel. 603 818 142

Lan bila nabil. Helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketan. Berehala lanean hasiko nintzake. Tel. 648 271 757

Lan bila nabil. Helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketan. Berehala lanean hasiko nintzake. Tel. 617 016 397

Neska arduratsua lan bila nabil, umeak edo helduak zaintzeko edo garbiketan. 632 285 101

Emakume Usurbildar bat naiz eta umeak edo helduak zaintzeko esperientziarekin. 616 273 785

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. 632 264 187

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. 688 712 294

Ikastolatik atera ondoren umeak zaintzeko prest dagoen neska usurbildarra naiz; gaztea eta euskalduna. Edozer dela ere, deitu edo bidali whatsapp mezu bat lasai 688637679 zenbakira, Maddi.

Lan bila nabil. Margolari bezala lan egin dut, garbiketa lanetarako titulua dut, "catering"ean ere aritu izan naiz. 686 51 35 36.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. 631 864 292.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketan lan egingo nuke. Tel. 617 748 714.

Lan bila dabilen neska arduratsua naiz, esperientziarekin. Umeak arratsalde zaintzeko prest. Maria 672340330

Pertsona heldu edo dependienteak zaindu edota etxeko garbiketa lanak egiteko prest. Soziosanitario titulua dut eta



**Zorionak Patxi!** Belarriak gehiegi ez izorratzeko txandakatuz hasi gaituk tiradizoak egiten, bat batean, hurrengo bestean... baina 43 direnez, bat soberan. Hortaz, azkena muxu potoloa izango duk. Muaaaa!

## Heriotzak

M<sup>a</sup> Pilar Urrutia Urrutia

80 urterekin hil zen urriaren 25ean Usurbilen



esperientziaduna. 686 825 587.

Ordukako lan baten bila nabil arratsaldeetarako, garbiketa eta haur edo helduen zaintza lanak egiteko. Berehala hasteko prest. Erreferentziak ditut. Esperientziaduna. 688 77 41 80.

Pertsona helduen zaintza lanak egiteko lan bila nabil. Berehala hasteko prest. Esperientziaduna eta erreferentziak ditut. 658 45 36 76.

Emakume arduratsua, garbiketa haur zein helduak zaintzeko prest. 617 75 15 22

Emakume bat etxeko nahiz zaintza lanetan aritzeko prest. Esperientziaduna. 693000147

Lan bila dabilen neska bat naiz. Arduratsua eta esperientziarekin. Garbiketa lanak egiteko prest. 11:00-17:00 bitartean. Tel. 603 315 126

Lan egiteko prest dagoen neska bat naiz. Garbiketa, zahar edo haurren zaintza... Paperekin eta esperientziarekin. 618 350 804.

Lan egiteko prest dagoen neska bat naiz. Zaharrak, haurrak, etxeko lanak... Esperientziarekin. 688 777 464.

Lan bila nabilen neska bat naiz. Tel 602 069 147

Lanean berehala hasteko prest. Neska jatorra, arduratsua eta langilea. 604166831.

Lan bila nabil. Garbiketan, pertsona helduak edo umeak zaintzen. Berehala lanean hasiko nintzateke. 632 140 789.

Lan bila dabilen neska arduratsua naiz, esperientziarekin. Berehala lanean hasiko nintzateke. 637 106 649.

Lan bila dabilen mutil bat naiz, esperientzia ere erreferentziarik pertsona helduak zaintzen. Os-

pitaleetan, paseatzeko eta pozik edukitzeko prest nago. Berehala lanean hasiko nintzake. 603 595 656

Emakume arduratsua naiz, eta lan egingo nuke, pertsona helduak zaintzen edo etxeko lanak egiten. 663 488 438

Garbiketa lanetan edo pertsona helduak zaintzen lan egingo nuke. 617 064 054

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo lukeen neska bat naiz. Esperientziarekin. 663 443 736

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. Tel. 619 355 819

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Tel. 633 101 867

Emakume euskaldun bat eskaintzen da, etxeko lanak egiteko. Astean 2 egunez, goizez edo arratsalde. Urtariletik aurrera. 671 547 567

Neska arduratsua bat lan bila dabil. Pertsona helduak zaintzen, umeak zaintzen edo garbiketan. 671277904

Mutil arduratsua bat lan bila dabil. Pertsona helduak zaintzen. Erreferentziak eta esperientziarekin. Tel. 603 595 656

Lan bila nabil. Helduak zaintzen. 631 996 636.

Lan bila nabil. Paperak egunean. Helduak zaintzen. 631 856 814.

Lan bila dabilen neska bat naiz. Arduratsua eta esperientziarekin. Etxeko lanak egiten, umeak edo nagusiak zaintzen. Segituan lanean hasiko nintzake. 637106649.

#### BESTELAKOAK

Andatzpe Elkartean bazkide berriak sartzeko plaza libreak daude. Edozein zalanza argitzeko 669 205 896 (Aitor).

Andatzpe elkarteko bazkidea naiz, plaza saldu nahiko nuke. Interesa duenak deitu: 699 421 238 Iñigo.

Ohe artikulatua salgai. 1'35 neurrikoa da eta berri berria dago. 650 027 123.

Urtea zehar ingeleseko klaseak ematen ditut, etxeetara joanda. Jokin. Tel. 600 766 068

Usurbilen bizi naiz eta Lehen Hezkuntzako oposaketak prestatzeko talde bat osatu nahiko nuke ahalik eta azkarren. Klase partikularrak jasoko nituzke 2017. urtean atera zuen batekin, orduko prezioa adostuz. Ima. 688681557

Diamante, madarines eta isabelito japonesezko txoritxoak salgai. 659 185 107

Nissan Terrano 2 markako kotxea salgai. 943 429 682 / 637 293 471

3 metroko toldo marroia eta ariketak egiteko trifasikoak salgai. Prezioa adosteko. 676 39 89 33

Ingleseko klaseak ematen ditut 3-4 urteko haurretatik hasita. Klase dibertigarri eta alaiak gaztetxoentzat eta azterketen prestakuntza nerabeentzat. CPE tituluduna. Natali 635909606

#### TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patinetak, liburak... Atalluko Garbigunean. doan hartu daitezke. Asteleheneetik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00.

## Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Amenabar botika (lehen Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta.....	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiarde Kirolegia.....	943 372 498	Kutxabank.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala.....	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco SabadellGuipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkartea Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	692 898 492	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaua! Kultur Elkartea.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

## Goardiako farmaziak

**Osteguna 31** URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

**Ostirala 01** DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

**Larunbata 02** DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

**Igandea 03** DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

**Astelehena 04** ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

**Asteartea 05** GANDARIAS-URIBE Iñigo Loloia 9. Lasarte

**Asteazkena 06** LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

## Urriak 31 - Azaroak 10

**Osteguna 07** GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

**Ostirala 08** ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

**Larunbata 09** LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

**Igandea 10** LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

LARUNBATETAN,  
Usurbilgo bi farmaziak ireki-  
ta egongo dira: 9:00-13:30

**GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ**  
CASTILLA-LARBURU  
URBIETA KALEA, 7 HERNANI  
943552941

Gainontzeko datak [www.cofgipuzkoa.com](http://www.cofgipuzkoa.com) web orrian ikusgai.

# Agenda azaroa

## 01 ostirala

- **Bus taxi zerbitzu bereziak hilerrira.** Ikus ordutegiak orrialde honen azpiko albistean.
- **24. Artisautza Azoka** Usurbilen. Azoka, giza-proba, sukaldaritza txapelketa.... Ikus 13. or.

## 03 igandea

- **Haurrentzako zine zikloa euskaraz.** 17:00etan Sutegin: "Asterix, edabe magikoaren sekretua". Sarrerak egunean bertan, Sutegin 3 eurotan salgai.

## 04 astelehena

- **Odol ematea.** 18:00-20:30 Usurbilgo anbulatorioan.

## Asterix eta Obelixen abentura berrienak Sutegin

**B**i pertsonaia ezagunon film berriena dakar haurrentzako euskarazko zine zikloaren 2019ko edizioaren estreinaldiak. Igandean, azaroaren 3an, arratsaldeko 17:00etan hasita Sutegiko auditorioan, "Asterix, edabe magikoaren sekretua" filma. Sarrerak egunean bertan 3 eurotan kultur etxean izango dituzte salgai.

"Zuhaitz batetik bestera mihura bila ari dela, halako batean, Panoramix druida lurrera erori da. Han etzanda hausnartzen hasi da. Orkatila bat bihurritu du, baina askoz okerragoa izan zitekeen! Berak ezin balu, nork prestatuko luke neurrigabeko indarra ematen duen edabe magiko garrantzitsua? Asterixek eta Obelixek lagunduta, Galia osoan zehar bidaiatuko du druida trebe baten



**Igande honetan, 17:00etatik aurrera Sutegin. Sarrerak 3 eurotan, egunean bertan salgai.**

bila, hari edabe magikoaren errezetaren sekretua helarazteko asmoz, bere herrixkaren etorkizuna ziurtatzearren".

Usurbilgo Udalak Ziertza Gazte Elkartearekin elkarlanean antolaturiko zine zikloa azarotik martxora luzatuko da.

### Datozenak

#### Bilera, Anerreka Ingurumen Elkartekak deituta

Anerreka Ingurumen Elkarte herriko lur, aire eta ur kalitatearen alde lan egiteko sortu zen. "Horien inguruan, zer pausu ematen ari garen jakinarazteko bilera irekia egingo dugu azaroaren 7an, osteguna, 18:00etan Potxoenean". Gai hauek jorratuko dituzte bertan:

-Airearen kalitatearen datuen azterketa.

-Ucin: egindako lanak eta aurrera begirako proposamena.

"Beraz, informazioa jaso nahi baduzu edota ekarpenak egin nahi badituzu, bilera irekita gonbidatzen zaituztegu", hortxe Anerreka Ingurumen Elkartekoen gonbitea.

■ Noiz: Azaroaren 7an osteguna.

■ Ordua: 18:00etan.

■ Non: Potxoenean.

■ Bileraren aurreikusitako iraupena: ordubete.

#### Azaroaren 12an, Euskaraldia prestatzeko bilera

Euskaraldia prestatzen segitzeko bilera irekia deitu dute azaroaren 12rako. Potxoenean egingo da bilera, arratsaldeko 17:00etatik aurrera.

Informazio gehiago:

<http://usurbil.euskaraldia.eus>

## Azaroaren 1ean, bus taxi zerbitzua San Inazioko autobus geltokitik abiatuta

Udalak taxi bus zerbitzu berezia jarriko du azaroaren 1ean hilerrira igo eta jaisteko. Zerbitzua doakoa izango da. 10:00etatik 14:00etara bitartean, San Inazioko autobus geltokitik abiatuta.

**San Inaziotik hilerrira:** Goizez: 10:00; 10:30; 11:00; 11:30; 12:00; 12:30; 13:00; 13:30.

**Hilerritik herrira:** Goizez: 10:15; 10:45; 11:15; 11:45; 12:15; 12:45; 13:15 13:45.

*Haginak ondo dabilzanean, sabela poz!*

### USURBILGO HORTZ KLINIKA

ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA  
EKAITZ GARMENDIA MERINO

Kale Nagusia 10, 1.C4  
Tlf 943 37 08 78

RPS: 28/17

2017  
USURBIL



· bazkariak EGUNERO  
· afariak. ostegunetik larunbatera

© 943 362725 · © 688 690 361



# MUNDUALDIA 2019

**azaroak 7, osteguna**

19:00 Sutegi, JON MAIAren HITZALDIA  
Extremaduratik bertsolaritzara: integrazio istorio bat

**azaroak 9, larunbata**

18:00 Alkatearen agurra


18:10 ZIRIMARA eta ORBELDI dantza taldearen emanaldia

19:00 Jakien dastaketa

20:30 kontzertua, HEZURBELTZAK



Usurbilgo Udala



# 31 ETXEBIZITZA USURBILEN, UGARTONDO AUZOAN



Pertsonalizatu zure etxebizitza  
nahi duzun modura



Armairuak



Sukaldea



Pertsonalizazioa



Garajea



## ZURE ETXEA IZAN LITEKE

Ez galdu aukera hau

### 943 30 29 20

[www.sukia.com](http://www.sukia.com)

 **sukia**

Zure etxean zaude

Finantziatuta

